


BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan guk identifikatutako arazoari aurre egiteko eskainiko dugun zerbitzua azalduko dugu, zehatz mehatz eta xehetasun guztiak kontuan izanik.

Hasteko, aurkezpenean esan dugun bezala, gure ideia, gazteen ongizate emozionala hobetu eta zainduko duen dohako zerbitzua da, zeinak laguntza mota desberdinak eskainiko dituen.

Idea berritzailea dela esan daiteke; izan ere, psikologiak gaur egun garrantzi handia du, baina garestia da. Hori dela eta, gure zerbitzua dohakoa izango da gazteentzat, denek gurekin lanean ibiltzeko aukera izan dezaten. Proiektua finantzatu ahal izateko ikastetxe eta elkarte desberdinekin jardungo dugu lanean, eta horrez gain, gobernuaren laguntza ere jasoko dugu.

Gazteei zuzenduta dagoenez, haien gaur egungo entretenimendu nagusian jarri dugu arreta, hau da, telefono mugikorretan. Egun osoa igarotzen dute hura sakelari edukiz. Horregatik, gure eskaintzen artean bat telefono zerbitzua da. Honek ordutegi mugatu bat edukiko du. Hala eta guztiz ere, 24 orduko zerbitzu bat aktibo edukitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, laguntza ahalik eta azkarren eman dadin. “Chat” zerbitzua hortan datza. Nahiz eta erantzuna gure ordutegien barruan jaso, idazteko aukera egongo da edozein momentutan, barrua lasaitu nahi izanez gero. Bi zerbitzu hauek modu anonimoan izango dira, gazte askok ez dutelako nahi izaten haien identitatea azaldu.



Teknologia bidez konektatuta egotea garrantzitsua da. Dena dela, ez dago ezer hobe aurrez aurreko kontaktua baino. Zerbitzu presentzialaren kasuan, hainbat eskaintza desberdin ditugu: aurrez aurreko zerbitzua, talde terapia eta profesionalekin hitzaldiak. Lehena psikologora joatea bezala da. Gure ordutegien barruan etor zaitezke gurekin hitz egitera, aurrez hartutako txandarekin bada hobe. Modu honetan, zure arazoari buruz hitz egiteko aukera izango duzu, eta gu honi konponbide bat ematen saiatuko gara.

Bestetik, talde terapiari erreparatuko diogu. Nerabezaroan izandako arazoak oso ohikoak izaten dira gazteen artean. Askotan ez gara kontziente, baina pertsona asko daude gure egoera berdinean, eta horiekin hitz egiteak asko lagundu gaitzake. Hori da talde terapiaren helburua: kasu berdinak dituzten gazteak elkartu, eta bakoitzak bere kezkak plazaratu; ondoren, hezitzailearen eta gazteen artean konponbidea bilatu eta elkarri lagundu. Bilera hauek gune seguru bat izatea nahiko genuke. Horregatik, konfidentzialtasuna eskatzen da partaideen artean.

Azken zerbitzua adituen hitzaldien eskaintza da. Profesional askorekin egingo dugu lan, eta noizean behin gonbidatu egingo ditugu gurera, haien esperientzia eta laguntza partekatu dezaten. Zerbitzu hau edozein gazteri zuzenduta dago; ez du axola gurekin lanean inoiz ibili ez izana.

Aipatu beharra dago, gurekin harremanetan jartzeko zerbitzu guztietan lehena telefono bidezkoa edo “chat” zerbitzua dela. Ondoren, langileok kasua aztertu eta gazte bakoitzari gomendio batzuk emango dizkiogu. Esate baterako, zein laguntza mota jaso beharko lukeen edota egoera berdinean dauden beste gazte batzuen kontaktua pasa. Laguntza profesionalagoa edo arreta pertsonalizatuagoa behar duela ikusiz gero, gurekin lan egiten duten aditu batengana bideratuko genuke gaztea.